

Parte hartzearen bidean: gizarte eraldaketarako gaitasunak eraikitzen



ALBOAN
Jesuitak bultzatutako GKE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Jasotzea
eta Kari. Departamentua



GIPUZKOA



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Parte hartzearen bidean: gizarte eraldaketarako gaitasunak eraikitzen



ALBOAN

Jesuitak bultzatutako GKE

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



**ORAIN
GIPUZKOA**



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**



Argitaratzailea: **ALBOAN**

Aita Lojendio 2, 2.

48008 **Bilbo**

Tel.: 944 151 135

Faxa: 944 161 938

Barañain Etorbidea 2

31011 **Iruñea**

Tel.: 948 231 302

Faxa: 948 264 308

Andía Kalea 3

20004 **Donostia**

Tel.: 943 275 173

Faxa: 943 320 267

Monseñor Estenaga, 1

01002 **Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 202 676

Faxa: 945 202 676

alboan@alboan.org

www.alboan.org


2019. urtea

Diseinu eta maketazioa: Marra

Inprimaketa: Lankopi

Esker onak


ALBOANek eskerrak eman nahi dizkie hala Euskadin nola Kolonbian lan hau ahalbidetu duten pertsona guztiei. Batetik, hezkuntza-sektore formalean eta ez-formalean gazteekin lan egiten dutenei, bai eta ikertzaile eta akademikoei ere, tresna honi indar pedagogikoa eta zorroztasuna emateagatik. Bestetik, beren errealitate sozialak eraldatzeko eta justizia sozialeko etorkizuna eraikitzeko ahalegina egiten duten gazteei; haien irrikak eta gogo biziak parte hartzerako bide honetan lan egitera bultzatzen gaituzte.





Edukia

Hitzaurrea	7
1. Gazteen parte hartzea	9
1.1. Gizartea eraldatzeko hezkuntza	11
1.2. Gaitasunak sustatzea eta garatzea	12
1.2.1. Hiritartasun globalerako hezkuntza	14
1.2.2. Genero-ekitatea	14
1.2.3. Kulturarteko bizikidetzarako hezkuntza	16
2. Gaitasunen mapa	19
2.1. Eraldatzeko eremuak	19
2.2. Alderdiak	20
Eranskinak	25
1. eranskina. Autodiagnostikoa	25
2. eranskina. Elkarrizketen kodeak	27
Erreferentziak	29
Irudien zerrenda	
1. irudia. Parte hartzerako hezkuntza eraldatzeko eremuak	20
2. irudia. Parte hartzerako hezkuntzaren eraldaketa eremuak	20
Taulen zerrenda. Herritarren parte hartzerako gaitasunak	
1. taula. Hiritartasun globala	22
2. taula. Genero-ekitatea	23
3. taula. Kulturarteko bizikidetzak	24



Hitzaurrea

Gaur egungo gizarteko eta ingurumeneko arazo handien aurrean, lehentasunezkoa da mundu onberagoa eta iraunkorragoa eraikitze lan egiten duten, bazterkeriarekin eta injustiziarekin haserretzen diren eta aniztasuna errespetatzen eta balioesten duten herritarrak prestatzea.

Herritarren parte hartzea, hots, herritarrek dituzten estrategiak beren interesak, kezak, lehentasunak eta sinesmenak gai publikoei buruzko erabakiak hartzearekin batzeko eta, hala, beren errealitateak aldatzeko, oso garrantzitsua da arazo horiek gainditzeko estrategia demokratiko moduan.

2018an eta 2019an Euskadin eta Kolonbian egindako ikerketa bati esker, herritarren parte hartzerako gazteen hezkuntzaren arloan egindako aurkikuntza garrantzitsuenak biltzen dira esku artean duzun dokumentuan. Ikerketa **ALBOANek** sentitutako premia batetik sortu zen; hain zuzen ere, jakin nahi izan zuen zein diren eta nola indartzen diren herritarren parte hartzeko prozesuetan esku hartzen duten gaitasunak, hezkuntza formalaren eta ez-formalaren eremuetan.

Hala, hirugarren sektoreko erakundeetan lan egiten duten pertsonak, hezitzaileak, ikertzaileak eta partaidetzako prozesuetan parte hartzen duten gazteak elkarriketatuta, gizartea eraldatzeko partaidetza sustatzeko hezkuntzarako erronkak eta aukerak identifikatu ahal izan genituen. Baimen informatua eskatu ondoren, eta erdi-egituratutako gidoi baten bidez, hogeita bederatzi elkarriketa egin genituen, guztira¹. Batetik, Euskadin hamazazpi egin genituen eta, horiei esker, hala gaikako eta kontzeptuzko hurbilketak nola gazteekin lan egiteko esperientzia eta erronka pedagogikoak identifikatu ahal izan genituen. Bestetik, Kolonbian hamabi elkarriketa egin genituen eta, horiei esker, proposamen hau elikatzeke beste esperientzia esanguratsu batzuk eta beste erreferente kontzeptual eta metodologiko batzuk ezagutu ahal izan genituen.

Aurkikuntza horiek oinarritzat hartu genituen Gaitasunen Mapa prestatzeko. Mapa horri esker, gazteekin lan egiten duten pertsonak eta erakundeek beren jardunbide eta prozesu pedagogikoak belaunaldi berrien partaidetza indartzeko gaitasunak sustatu eta garatzera bideratu ditzakete.

ALBOANek errealitatea aldatzeko behar diren gaitasunak dituzten herritarrak sortzen lagundu nahi du; hau da, herritarrek justizia soziala, emakumeen eta gizonen arteko ekitatea eta bizikidetzak baketsua errespetutik eta desberdintasunak baloratuz lortzea helburu izatea nahi du. Horrenbestez, gure xedea da ikerketa horretako aurkikuntzak tresna erabilgarria izatea hezkuntza formaleko eta ez-formaleko hezitzaileentzat, gazteei prestakuntza emateko prozesuetan, kritikak eta proposamenak egin ditzaten, eta konpromisoa har dezaten giza duintasunarekiko eta ingurumenarekiko errespetua duen mundua eraikitzeke.

Dokumentu hau bi atal handitan banatzen da, eta dagoen literaturatik eta egindako elkarriketatik elikatu da. Lehenengo atalean, guretzat gazteen parte hartzea zer den eta hori hezkuntzan sustatzeko eta garatzeko zer aukera dauden azalduko dugu; bigarrenean, berriz, Gaitasunen Mapa aurkeztuko dugu.

Espero dugu proposamen hau interesekoa eta erabilgarria izatea hezitzaileentzat, hala hezkuntza formalean nola ez-formalean.

¹ Ikus 2. eranskina.



1. Gazteen Parte hartzea

Parte hartzeak bi esanahi ditu: beste batzuekin zer baitetan parte hartzea eta norbaitekin zer bait partekatzea. Bi esanahietan, parte hartzeak bi pertsona edo gehiago biltzen ditu, ezinbestean, eta, horregatik, askotariko iritzi eta ikuspegiak dauden gizarte-ekintza da (Merino, 1995).

Cornwallentzat (2002), herritarren parte hartzea gertatzen da gizarte osoa beren benetako interesen inguruan mobilizatzen denean, baliabideen kudeaketan eta parte hartzean arau gardenak eraikitzeko, guztien ona lortze aldera.

Politikaren eta gizartearen alorrean, herritarren parte hartzea funtsezko elementua da demokrazia gauzatzeko; izan ere, gai publikoak kudeatzeko onuragarria da, giza talde, komunitate edo gizarte bat osatzen duten pertsona guztien interesak eta premiak kontuan hartzen direnez. *«Parte hartzeak arauan formalki ezarrita dagoen legezko berdintasuna zertzen du errealitatean, eta tradizioz politikatik baztertutako sektoreei aukera ematen die agertoki publikoan parte hartzeko eta talde-helburuak finkatzen laguntzeko»* (27EU-A).

Herritarren parte hartzearen onurak gorabehera, gauegun, gizartearen balioa galdu du partaidetzak. Askok ez dituzte ikusten eguneroko bizitzako oztopoak gainditzeko ematen dituen aukerak. Hain zuzen ere, gaur egungo ordezkarietako demokraziaren ereduaren pean, parte hartzeak gobernuaren erabakietan eragin txikia duelako ustea sortu da.

Herritarren artean zabaldu da sistema politikoak ez dituela kontuan hartzen herritarren premiak eta arazoak, eta oso zaila dela arlo publikoaren kudeaketarekin lotutako erabakietan eragitea. Aurreko guztiaz gain, partaidetzako plataforma klasikoekiko (alderdi politikoak, sindikatuak eta elizak, esaterako) konfiantza faltak, gero eta handiagoa den indibidualismoak, politikaren hozkeriak eta erakundearen eta organo publikoetako ordezkarien sinesgarritasunik ezak eraginda,

herritarrek beren erantzukizun sozialetatik aldendu dira eta horiekiko interesa galdu dute (Arellano, 2015).

Gazteei dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren Gazteriarri buruzko Txostenak (2017) adierazten duenez, 18 eta 30 urte arteko gazteen % 70ek interes txikia du edo ez du interesik politikan, eta % 29k soilik esan du interes handia duela gai horretan. Hala, interesgarria da jakitea zer ulertzen duten gazteek politikari buruz, eta zerk bultzatzen dituen erantzukizun sozial handiagoa edo txikiagoa izatera.

Bozkatzea da herritarrek parte hartzeko duten modu tradizionala, aukera ematen baitie arlo publikoaren kudeaketan ordezkarietako dituzten pertsonak hautatzeko. Egia da funtsezkoa dela demokrazian oinarritzen diren gobernu-sistema guztietan, baina kontuan hartu behar da boto-eskubidea adin nagusitasunera heltzean lortzen dela eta, ondorioz, kanpoan geratzen direla gazte asko, eta ez dela herritarrek parte hartzeko duten modu bakarra.

NBEk 2015ean Gazteriarri eta Herritarren Parte Hartzeari buruz egindako Munduko Txostenaren arabera, gazteak ez dira askorik arduratzen politikaz, baina horrek ez du esan nahi herritar gisa gutxiago parte hartzen dutenik; aldiz, parte hartzea aldatu egin da. Txostenak aditzera ematen duenez, gazte gehienek nahiago izaten dute aktibismo informala gobernarritasunaren inguruko kontuetan esku hartzeko. Ondorioz, gazteen partaidetza-bideak ugaritu egin dira, eta orain beste modu alternatibo batzuk erabiltzen dituzte: besteak beste, Internet bidezko eskaerak, boikota, musika eta beste adierazpen artistiko eta kultural batzuk, esaterako, graffitiak

eta hip-hopa. Hain zuzen, gure ikerketaren bidez, gazteek parte hartzeko dituzten moduak aztertu ditugu eta askotariko moduak eta estrategiak aurkitu ditugu askotariko gizarte-gai eta -arazoak kritikoki lantzeko: zinema-foroak, kaleko protestak, argazkigintza, dantza, antzerkia eta gazteen irratia, esaterako.

Hortaz, egoera horrek agerian jartzen du parte hartzeko beste aukera batzuk identifikatu eta sustatu behar direla hezkuntzan, eta koherenteagoak izan behar direla gaur egungo gizarte-dinamikekin, zeinen bidez gazteek aukera izango dute beren errealitate sozialak mundu globalizatu honetan eraldatzeko ekimenak garatzeko.

Nola susta daiteke parte hartzea?

Herritarren parte hartzearen helburua pertsonen arlo publikoan eragina izan eta beren errealitate sozialak aldatzea bada, nola egin jakin behar dute. Prozesu horretan ulertu genuen parte hartzea ez dela berez sortzen, aldiz, ikasi egin behar dela. «Hezkuntzaren bidez, pertsona batek parte hartzeko behar dituen ezagutzak eta trebetasunak susta daitezke. Hasteko, beharrezkoa da ulertzea zein diren gazteak parte hartzera bultzatzen dituzten arrazoiak eta identifikatzea zer aldatu nahi duten beren errealitate sozialetik. Hezkuntzak gaitasun eta trebetasun komunikatibo eta kognitiboak susta ditzake, iritziak adierazi, eztabaidatu eta argudiatzeko. Alabaina, agian garrantzitsuena da hezkuntzak parte hartzeko agertokiak ematea, formalak eta ez-formalak» (27EU-A).

Hala Euskadin nola Kolonbian, ideia bat behin eta berriz atera zen: parte hartze ikasteko parte hartu behar da. Horri buruz, Getxoko Udaleko gazteriako teknikariak hau adierazi zuen: «Ezagutzak askoz ere gehiago finkatzen dira esperientziaren bidez barneratzen direnean. Horregatik, esperientzia hori egon dadin lortu nahi dugu, hots, gazteek benetan

ikasten duten ikaskuntzako aukera hori egon dadin» (11EU-HEF). Ildo beretik, Kolonbiako Educapaz² erakundeko zuzendariak hau adierazi zuen: «Herritarren parte hartzea ikastea ez da diskurtso-kontua. Balio bat eraldatzeko, ez da nahikoa kontzeptualizatzea eta herritarrei buruzko ezagutzak izatea, nahiz eta oso garrantzitsua izan; aldiz, gatazkak, desadostasun kognitiboak eta emozio bat, sentazio bat eta egoera bat bizitzeko aukerak behar dira, eta, horrek sortzen duen plazeraren edo atsekabearen unean, ekintzara daramaten hausnarketak sortzea» (23KO-HEF).

Hau da, berdin dio parte hartzeko ekimenen eragina handiagoa edo txikiagoa den, hezkuntzaren bitartez gaitasun jakin batzuk sustatu eta garatu daitezke: besteak beste, errealitate sozialen irakurketa kritikoa egitea, eztabaida horizontaletan parte hartzea, eta guztien ikuspegiak eta beharrak kontuan harturik adostasuna bilatzea. Horregatik, gure proposamena gazteentzat da, hezkuntza formaleko eta ez-formaleko guneek aukera ematen baitute gazteen interesa eta erantzukizun soziala sustatzen duten estrategiak garatzeko eta, horrez gain, parte hartzeko konpetentziak eta gaitasunak sustatzeko, garatzeko eta praktikan jartzeko.

Zertaz ari gara gazteez ari garenean?

Esku artean darabilgun ikerketak aukera eman zigun identifikatzeko nola Euskadin ikuspegi heldukratiko batetik ikuspegi gazteazale batera pasatu garen, gazteen parte hartze sozialari dagokionez. Lehenengoaren arabera, gazteria helduarorako trantsizioa da eta zenbat eta laburragoa izan, hobeto. Hots, ikuspegi horretatik, lortu nahi dena da gazteak ahalik eta lasterren emantzipatu daitezen eta etxebizitza bat lortu, lana aurkitu eta familia osatu dezaten. Bestalde, ikuspegi gazteazaletik, gaztaroak bere kabuz balioa duela ulertzen da eta uste da ekarpenak eta gizarte-erlaketak egin daitezkeela aro horretan.

Gutxi gorabehera 80ko hamarkadara arte, gazteriar buruzko politikak aisiarekin lotzen

² Hezkuntzatik abiatuta, Kolonbian bakea sortzen laguntzeko tokiko ekintzarako, ikerketarako eta eraginerako programa.

ziren, «Estatu osoan gazteek lehenengo protestaldietako bat egin zuten arte. Orduan (80ko hamarkada erdialdea) hasi ziren ulertzen gazteak ez zirela aisiaz eta gozamenaz soilik arduratzen, baizik eta gizarte-gaiei buruz ere hitz egin daitekeela haiekin» (11EU-HEF). Horrela hasi ziren gazteriar buruzko politikak eta gazteen parte hartzeari buruzko hurbilketak beste modu eta metodologia batzuk kontuan hartzen, botoaz eta aisiaz harago, eta eraldaketa sozialerako parte hartzera bideratzen.

Pertsona bat gaztetzat hartzeko adin-tartea aldatu egin da. Gaur egun ez da pentsatzen adinez nagusi bihurtzean amaitzen denik gaztaroa. «Dagoeneko ez dugu pentsatzen pertsona batek gazte izateari uzten dionik 18 urte bete eta lan-merkatuan sartzen denean. Gaur egun 75 urte dituen pertsona bat, seguru-enik, 15 urterekin hasiko zen lanean, ikastun modura nonbait, 20 urte ingururekin ezkondu eta 30 urte betetzerako 3 seme-alaba izango zituen. Pertsona hori dagoeneko ez zen gaztea, heldu moduan jokatzeko zuen eta helduen erantzukizunak zituen. Gaur egun hori luzatu egin da: 30 urteko pertsona batzuek ez dute oraindik lan egonkorrik izan, ez dute seme-alabarik izan, ez dute hipotekarik edo krediturik eskatu eta beren gurasoekin bizi dira. Zure bizitzaren % 40 hartzen duen aldi bati trantsizio deitzea gehiegizkoa da» (11EU-HEF). Horrelaxe hasi zen, dinamika ekonomiko eta sozial berriekin, gazteria beste era batera ulertzen. Gaur egun, Euskadin, hala politika publikoak nola gazteen parte hartzerako hezkuntza ez-formaleko guneak zabaldu eta dibertsifikatu egin dira. Esku artean dugun ikerketan, **ALBOAN**ek erabaki zuen Eusko Jaurlaritzak (2015) proposatzen duen adin-tartea hartzea, hots, 15 urtetik 29 urtera, ikuspegi gaztezaleak gizartea eraldatzeko eta berritzeko ematen dituen aukerak aintzat hartuta.

Beraz, uste dugu funtsezkoa dela guztion arazoak identifikatzen lagunduko duten guneak sortzen laguntzea eta proiektu kolektiboak proposatzea eta garatzea, gizarteko askotariko arazoak gainditze aldera. Badakigu ez dela erronka erraza; izan ere, herritarren parte hartzeak gizarte-errealitateak justizia sozialaz eraldatzea lortzeko, beharrezkoa da gaitasunak eta konpetentziak sustatzea eta garatzea, pertsonak aukera izan dezaten rol eraikitzailea izateko partaidetzako zenbait guneetan. Horregatik oinarritzen da gure

proposamena Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzan, gaitasunetan oinarritutako ikuspegitik.

1.1. Gizartea eraldatzeko hezkuntza

Hezkuntzak funtsezko zeregina du herritarren parte hartzearen sustapenean. Lehenago aipatu dugun moduan, prozesu pedagogikoen bidez susta eta gara daitezke belaunaldi berriei beren errealitateak sortzean beren erantzukizun soziala ezagutzeko aukera emango dieten gaitasunak; halaber, prozesu horien bidez eskura ditzakete arlo publikoan eragina duten partaidetzako estrategiak diseinatzeko eta ezartzeko tresnak. Era berean, hezkuntzaren bidez susta daitezke justizia sozialarekin, diskriminaziorik ezarekin eta desberdintasunarekiko errespetuarekin eta balorazioarekin konprometitutako balioak eta jarrerak.

Herri-hezkuntzan, herritarren parte hartzerako hezkuntza ekintza *politikotzat* hartzen da, zeinaren bidez sistema sozial eta politiko zapaltzaileak identifika daitezkeen eta, hala, bidea zabaltzen den egitura horiek aldatzeko (Brito, 2008). Paulo Freirek mota horretako hezkuntzari *hezkuntza askatzaile* deitzen zion, pertsonak kritikoki ulertzen dituztelako hala botere-harreman desorekatuak nola desparekotasunaren prozesu historikoa, gizartearen eraldaketan parte hartzeko. Eraldatzen duen hezkuntza mota horrek arreta jartzen du testuinguruaren errealitatearen alderdietan, eta elkarrizketa, pentsamendu kritikoa eta sormena ditu oinarri (Freire, 1970).

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzan, ulertzen da hezkuntzako jardunbidea dela bizitzaren arlo guztietan botere-harreman bidezkoak eta parekideak sortzearen alde egiten duen prozesu etiko, politiko eta soziala (METCG, 2018:12). Horrek esan nahi du hezkuntzari buruz pentsatzean, pertsonak aldaketako eragile gisa hartu behar direla. Horri buruz, Eraikiz Kolektiboko kideek hau adierazi zuten: «gizarteko esku-hartzean lanean ari garenez, konturatzen hasi ginen gauza bat dela pertsonen eta taldeen behar dutenari buruz aurrez ezarritako diseinu batetik lan egitea, eta guztiz bestelako gauza dela pertsonen galdetzea zer behar duten, zer

amesten duten eta nola bizi daitezkeen hobeto. Konturatu ginen gizarte-erlaketak etorkizun hobearekin duela pertsonak berak direnean beren prozesuen buru» (20EU-HEF).

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren oztopotako bat historikoki irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak gauzatzeko egon den modu tradizionala da. Hau da, ulertzen zen hezkuntza edukiak transmititzea zela, egitura bertikal baten bidez, zeinak oztopatu egiten baitzuen ideiak eztabaidatzea, iritziak trukitzea eta ezagutza taldean sortzea. Beraz, komeni da jardunbide pedagogikoek parte hartze ekimenak taldean eraiki daitezen sustatzea, harreman horizontalak ezarrita. Horregatik da funtsezkoa hezitzaileen zeregina, haiek baitira parte hartzeko prozesuen buru, moderatzaile eta orientatzaileak. Euskal Herriko Eskauten begiraleak prestatzeko eta haiei laguntzeko koordinatzailearentzat, hezitzaileak erreferenteak dira eta gaitasuna dute norbaiti laguntzean beren kokapenari buruzko autokritika egiteko, eta nabarmentzen du garrantzitsua dela *«ilusioa transmititzen jakitea, hots, parte hartzeko eta amaierara iristeko ilusioa helaraztea, bai eta borrokatzekoa eta elkarrekin eraikitzekoa ere»* (15EU-HEF).

Bestalde, gazteen partaidetza-prozesuak gauzatzeko, gizarte-erantzukizuna indartu behar da eta inplikazio eta motibazio handia behar da prozesu horietan parte hartzeko. Horri buruz, Boluntaagentziaren partaidetzako hezkuntza-prozesuen arduradunak adierazi du bere lana Nahi - Jakin - Ahal estrategian oinarritzen dela, hots, *«parte hartu nahi izatea, baina pertsona bakoitzaren motibaziotik, horretarako ezagutzak izatea eta planteatutako helburuak lortu ahal izatea. Guretzat garrantzitsua da trebatzen dugun bitartean horretarako tresnak ematea»* (12EU-HEF). Ildo beretik, Kolonbiako Fe y Alegría sareko aholkulari pedagogiko batek hau dio: *«Edukiak garrantzitsuak dira, horietatik abiatuta sor baitaiteke hausnarketa kritikoa, harreman horizontalen, elkarriketaren eta eztabaidaren esparruan. Alabaina, hausnarketa horiek ekintzara eramanez ezaten, beharrezkoa da lantzen den gaiarekiko lotura emozionala egotea»* (9KO-HF).

Beraz, garrantzitsua da lidergo hori gauzatzeko metodologiek alderdi afektiboak lantzea,

ikaskuntza emozionalaren bidez; alderdi kognitibo eta intelektualak, ikaskuntza kritiko eta gogoetatsuaren bidez; eta alderdi aktiboak, esanahien eta esperientziaren ikaskuntzaren bidez, gazteek aukera izan dezaten modu kritikoan ulertzeko beren errealitate sozialak, eta gizarte-erlaketarako ekimenetan parte hartzeko.

1.2. Gaitasunak sustatzea eta garatzea

Zenbait agente eta eragilarekin egindako elkarrizketa eta truke horretan, **ALBOANek** ikusi zuen askotariko errealitate sozialak eraldatzeko talde-proposamenak sustatzeko, pertsonen zenbait gaitasun indartu behar direla: (i) testuingurua kritikoki irakurtzea, (ii) elkarrizketa eraikitzaileak eta proposamenetan oinarrituak egitea, eta (iii) sormenezko ekimen eta estrategiak diseinatu eta ezartzea.

Ikerketa honen bidez egituratzen dugun proposamenaren oinarrian, Amartya Sen eta Martha Nussbaum egileek proposatu duten gaitasunen ikuspegia dago; hain zuzen ere, ikuspegi horrek enfasi berezia jartzen du pertsonen bizi nahi duten bizitza izateko duten *askatasunean*. Esparru horretan, gaitasunak dira pertsona bakoitza izateko eta egiteko gai dena, bere garapen-testuinguruak ematen dizkion oztopo eta aukeretatik abiatuta (Sen, 1993).

Ikuspegi horrek itzuli nabarmena ematen die errealitatea aztertzeko ereduei, aukera ematen baitu jakiteko zenbateraino den justua eta berdintasunezkoagizartea. Ekonomia eta beste arlo batzuetan bizi-kalitatea ebaluatzeko erabiltzen diren beste ikuspegi batzuetatik urruntzen da. Hau da, pertsonen bizimodu jakin bat izateko dituzten baliabideen kopurua kontuan hartu beharrean, baliogestuen dutena lortzeko duten askatasunean jartzen du arreta (Urquijo, 2014). Hala, ikuspegi horretatik, pertsonen ongizateari eragiten dioten gizarte-arazoak azter daitezke, esaterako, desberdinkeria, pobrezia, bizi-kalitatea, giza garapena eta injustizia soziala, eta identifikatutako arazoak eraldatzeko eta gaingintzeko behar dena identifika daiteke.

Martha Nussbaumentzat (2012), gaitasunak izatea da hautua egiteko aukera izatea, zertarako eta ongizatera daramaten ekintzak gauzatu eta horrelako egoerak lortzeko. Gaitasunen ikuspegiari egin dizkion ekarpenetatik, hiru elementu nabarmenduko ditugu; behin eta berriz atera ziren elkarriketetan eta, beraz, uste dugu funtsezkoak direla parte hartzerako hezkuntza-prozesuak indartzeko eta gauzatzeko:

AUKERAN EDO ASKATASUNEAN JARTZEN DU ARRETA, eta


defendatzen du gizarteek aukerak sustatu behar dituztela, pertsonen askatasunez hautatu ahal izan ditzaten beren giza garapeneko prozesuan beharrezkotzat jotzen dituztenak.

INJUSTIZIAZ ETA ERROTUTAKO DESBERDINKERIA SOZIALEZ

ARDURATZEN DA, bereziki, diskriminazioaren edo marjinazioaren ondorioz egoten den gaitasun gabeziak.

IKUSPEGI HORREN ARABERA, PERTSONA BAKOITZA HELBURUA DA, BEREZ, eta pertsona guztientzako gaitasunak sustatzen ditu; hala, pertsonak ez ditu erabiltzen beste pertsona batzuen edo taldearen gaitasunak lortzeko bitarteko modura.

Kolonbiako Fe y Alegría sareko kideak proposamen pedagogikoa prestatu du gaitasunen ikuspegitik abiatuta, gazteen parte hartzea sustatzeko beren errealitate sozialak eraldatzeko aukera emango dieten ekimenetan. Ikuspegi horren garapen pedagogikoari dagokionez, hau adierazi zuten: «*Ekonomiaren munduak hezkuntzara helarazten dituen jarreretan, lan-merkatuan jarduten dakiten pertsonak prestatzen dira; aldez, gaitasunen ikuspegian, pertsonen ahalmena indartu nahi da, baina kontuan hartu behar da gizarteak horretarako aukera ematen badu soilik gara daitekeela. Bada parte hartzearekin lotura duen funtsezko elementu bat: guztiok gure ahalmena garatzeko beharrezkoak diren baldintzak ez badaude, herritarrak hori lortzeko, eskatzeko eta borrokatzeko antolatu behar dira. Horregatik iruditu zaigu funtsezkoa kontzeptu*



hau eta erabat ados gaude, bi irakurketa horiek egiteko aukera ematen baitigu» (9KO-HF).

Beraz, **ALBOAN**ek behar diren konpetentzia eta gaitasunak sustatu nahi ditu, gazteek testuinguruaren irakurketa kritikoa egin dezaten eta beren errealitate sozialak eraldatzen parte har dezaten, bizi nahi duten etorkizuna eraikitze aldera. Horretarako, ezinbestekoa da haien iritzia kontuan hartzea partaidetza-prozesuetan, eta identifikatzea zein diren pertsonen egin nahi dutena egiteko edo nahi dutena lortzeko askatasuna mugatzen duten premia bereziak eta gizarte-arazoak. Prozesu horietan, testuingurua kritikoki irakurrita, adostasunak lortu behar dira, erabakitzeke zein diren estrategiarik hoberenak taldean askotariko zailtasunak gainditzeko eta norbanakoen eta taldeen ongizatea sustatzeko.

Ondorioz, ikuspegi horretatik sortutako hezkuntza-proposamenek beren helburuetan txertatu beharko dituzte Euskadin gizarte modura ditugun erronkak, gizarte-arazo handiak dituen eta giza eskubideak urratzen diren mundu honetan.

Horregatik, Garapen Iraunkorrerako Nazio Batuen Helburuekin (2015) eta Euskadin elkarriketatutako pertsonen azaldutako gai eta arazoekin bat etorri, herritarren parte

hartzerako gaitasunak sustatzeko egin dugun hezkuntza-proposamena eremu hauetan egituratzen da: hiritartasun globala, genero-ekitatea eta kulturarteko bizikidetza.

1.2.1. Hiritartasun globalerako hezkuntza

Hiritartasun globalerako hezkuntza da korronte bat, zeinak sustatzen duen mundu bidezkoagoa eta iraunkorragoa lortzeko aktiboki konprometitutako herritarrak prestatzea. Belaunaldi berriei tresnak ematea du helburu, globalizazioak gizartean eta ingurumenean duen inpaktuaren erronkei aurre egin diezaieten, eta ekarpenak egin nahi ditu, mundu iraunkorra eraiki dezaten eta justizia soziala egon dadin (Oxfam Intermón, 2013).

Hiritartasun globalerako hezkuntzak belaunaldi berriak hezi nahi ditu, herritarrak erantzunkide senti daitezen eta inplikazioa izan dezaten guztion eskura jartzeko baliabideak, eskubideak eta aukerak, bakoitzaren jatorria edo kultura gorabehera. Ildo horretan, lortu nahi du jendeak hiritartasuna identitate nazionalaren elementutzat gehiago har ez dezan, eta bizi garen mundu globalizatuarekin koherenteagoa den hiritartasuna eraikitzea eta eskuratzea sustatzen du (Maiztegui eta Eizaguirre, 2008).

Hiritartasun globalak proposatzen du pobrezia eta gizarte-bazterkeria jorratzeko konpromisoa sortu behar dela gizartean desberdinkeria ezabatzeke, munduko herritar modura. Horretarako, *«garrantzitsua da gure gazteek errealitatea ezagutzea. Hiritartasun globalaz ari bagara, beren ikuspegia zabaldu eta beren ikastetxetik, auzotik eta lagun-taldetik atera behar dute. Zaila egiten zaigu gure ikuspegia zabaltzea eta beste pertsonen egoeran pentsatzea, eta hori hezkuntzaren erantzukizuna da»* (12EU-HEF).

Era berean, justizia eta elkartasuna ikuspegi globaletik ulertzeko, ezinbestekoa da indarreko sistema ekonomikoak sustatzen dituen eredu sozialak zalantzan jartzea. **ALBOANek** merkatu globalaren eta eredu neoliberalaren dinamiken hurbilketa kritikoa indartu nahi du, globalizazioak elkartasunaren, parte hartzearen eta ekintza erkideen arloan ematen dituen

aukerak aprobetxatuz, mundu onberagoa, barne-hartzaileagoa eta justuagoa lortzeko.

Hiritartasun globalerako hezkuntzak proposatzen duenaren arabera, kontsumoaren kultura eta indibidualismoa jorratzean, kontuan hartu behar da elementu horiek desberdinkeria soziala sustatu dutela eta iparralde eta hegoalde globaleko herrialdeen arteko aldea areagotu dutela. Ikuspegi horretatik, proposatzen da tokiko eremua arlo globalarekiko elkargune moduan ulertzea, eta norberaren eta besteren kontuen arteko banaketa ezabatzea.

Hala, hiritartasun globalerako hezkuntzak esaten du bi norabideko harremana dagoela norberaren eta guztien ona bilatzearen artean; hala, azaltzen du ekintza pertsonalek edo tokikoek eragina dutela munduan, eta alderantziz. Ildo horretan, garrantzitsua iruditzen zaigu pertsonen integritatea eta duintasuna aitortzetik eta baloratzetik abiatzen diren prozesu pedagogikoak sustatzea, belaunaldi berriek beste errealitate sozial batzuk onar ditzaten, enpatiatik eta elkartasunetik.

Bestalde, tokiko eremuaren eta arlo globalaren arteko loturatik abiatuta, hiritartasun globalaren ikuspegiak sustatzen du kontsumoaren kulturen oinarritutako bizi-estiloak dakarren ingurumen-inpaktuari buruz kontzientziazatzea. Hausnarketa kritikoak sortu nahi ditu gazteengan, bizi-estiloen eta pertsonen eta komunitatearen kontsumo-ohituren eraldaketari buruz, ingurumenaren narriadura eta klima-aldaketa arintzeko. Kontsumo iraunkorreko jardunbideak sustatzen ditu, bai eta hurbileko inguruneke baliabide naturala babesteko gizarte-mobilizazioa ere.

1.2.2. Genero-ekitatea

Emakumeek herritar gisa dituzten eskubideak gizonenak baino geroago aitortu dira, gizarte guztietan. Emakume feministen taldeek beren eskubide zibilen bermea eskuratzeko egindako borrokari esker lortu dira aurrerapen horiek. Alabaina, hezkuntzara, kargu publikoetara eta gizonak nagusi diren gune eta lanbideetara heltzea erronka handia da, oraindik ere, testuinguru askotan.

Gaur egun, gizarte nagusiki patriarkaletan bizi gara, zeinetan emakumeak eta neskek

diskriminatzen diren, politikoki, sozialki, ekonomikoki eta kulturalki. Gizarteek emakumeen rolari eman dioten balio eskasak hainbat ondorio izan ditu: pobrezia-aren feminizazioa munduan, emakumeen aurkako indarkeria-tasa altuak, gizonak baino langabezia handiagoa, soldata-diskriminazioa, etxeko lanen gutxiespena eta erantzukizun politiko, sozial, kultural eta ekonomikoko lanpostuetan presentzia txikia, besteak beste (Unesco, 2014).

«Munduko biztanleriaren erdiaren [...] esku-bideak urratu egiten dira, bereziki, parte hartzeko eskubidea. Emakumeak eremu pribatura baztertu dituzte eta zailtasun handiak dituzte eremu publikoan sartzeko. Horrekin esan nahi dut kalean ibiltzeko eta lan- eta hezkuntza-arloan aritzeko zailtasunak dituztela» (20EU-HEF). Emakumeak eta neskatoak etxeko eremura baztertu dituzte, garbiketako eta familia zaintzeko zereginak egitera, ordain ekonomikorik gabe eta arlo publikoan presentzia eta parte hartze txikiarekin. Bestalde, gizonak hartu dute eremu publikoa, historikoki; hala, administrazioari eta gizarte-antolaketari buruzko erabakiak hartu dituzte eta etxeko hornitzaileen rola bereganatu dute. Ondorioz, iruditeria sozialak sortu dira emakumeak egiteko gai direnari buruz eta gizartean har ditzaketen toki eta zereginei buruz (UNESCO, 2014).

Egia da Euskadin mugimendu feminista sendoa dagoela, eta azken urteotan emakume gazteen talde berriak batu direla mugimendu feministara, baina, parte hartzeari buruz, gazteekin lan egiten duten zenbait talde bat datoz: eremu publikoetan manifestazio eta grebetan duten presentziaz harago, ahots nagusia eta ozenena gizonena da. Duela hamar edo hogeitaz urte, «partaidetzako prozesuak eta eremuak oso maskulinizatuta zeuden. [Gaur egun] ohikoena da partaidetzako prozesuetan gehiengoak gizonetakoak izatea, adin jakin batekoak, eta zaila da hori aldatzea. Gai jakin batzuetarako, agian, emakumeen parte hartzea handiagoa da, baita hegemonikoa ere, baina gai femeninoekin lotzen delako. Adibidez, eskolaz ari bagara, emakume gehiago egongo dira, gizonak baino. Baina aurrekontuez ari bagara, gizon gehiago egongo dira» (26EU-A). Elkarrizketatu genituen emakumeetako batzuk adierazi zuten nolabaiteko prebentzioa dagoela jendaurrean hitz egiterako orduan. «Oso ohikoa da,

emakumeetan, epaituak izateko beldurra, haietaz espero dena bete nahi izatea... seguruenik, gizonak ere gertatzen zaie, baina uste dut guri gehiago gertatzen zaigula... Barruan ditugun gauzak dira eta pixkanaka horiek askatzen joan behar dugu» (1EU-G).

Emakumeetan zenbait kultura- eta gizarte-kategoria aldi berean konbinatzen eta batzen direnean, diskriminazio handiagoa egoten da; horren harira, genero-ekitateak, gaitasunen ikuspegitik ulertuta, diskriminazio-igoera horren hurbilketa kritikoa egitea proposatzen du. Ikuspegi horretatik, hautematen da emakumeek beren bizitza nahi duten moduan bizitzeko duten askatasuna ez dela berbera emakume guztietan, batzuetan hainbat zapalkuntza-egitura elkartzen baitira, esaterako, nazionalitatea, sexu-joera, erlijioa, arraza, desgaitasuna edo gizarte-maila, eta, horien ondorioz, egoera desberdinean daude (Crenshaw, 1991). Adibidez, gizarte-maila ekonomiko altuko emakume zuri eta heterosexual batek dituen eskubideak eta aukerak ez dira pobrezia-egoeran dagoen emakume beltz eta homosexual batek dituenak. Diskriminazio-moduak desberdinak dira eta identifikatu egin behar dira, partaidetza-prozesu pedagogikoak gauzatzen diren errealitate sozialetan eraldatu beharreko alderdiak hautemateko. Horri buruz, emakume gazte osatutako Raizes talde dekolonial transfeministako kideetako batek hau dio: «emakume bakoitzak hainbat zapalkuntza jasaten ditugu, eta guztiak hartu behar dira kontuan borroka feministan. Emakumeak ez gara monolitoa, aldarrikapen erkide batzuk ditugu, baina beste batzuk ez [...] Nire kasuan, adibidez, emakume arrazializatua naizen aldetik, matxismoaz askatzeaz gain, arrazakeriaz ere libratu nahi dut. Ezin dut aukeratu nire buruaren zein zati askatu nahi dudana zapalkuntzatik. Hor dago intersektionalitatea: emakume zuria ere, nire laguna eta ahizpa den aldetik, arrazakeriaren zapalkuntzaren aurka borrokatzea» (2EU-G).

Hezkuntzak zeregin garrantzitsua du errealitate hori eraldatzeko orduan; izan ere, emakume eta neskatoenganako diskriminazioari eusten dioten estereotipoak desegin eta iruditeria sozialak eraldatu ditzake. Aukera ematen du pertsonak sexuaren arabera hierarkizatu gabeko balio, portaera, arau eta itxaropenetan hezteko, eta norbanakoen desberdintasunen eta ezaugarri pertsonalen errespetuan oinarritutako heziketa emateko (METCG, 2018).

Uste dugu Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzan ezinbestekoa dela genero-ikuspegia izatea, eraldatu nahi diren gizarte-arazoetan emakumeek zer toki duten hauteman eta ebaluatzeko, eta, hala, eraldaketa sozialerako borrokan parte hartzeko baldintza berak izaten laguntzeko.

1.2.3. Kulturarteko bizikidetzarako hezkuntza

Gaur egun, gizarteak gero eta askotarikoagoak eta kulturantzunagoak dira. Ohikoa da eguneroko eremu publikoan askotariko jatorriak eta jardunbide kultural aniztunak dituzten pertsonekin topatzea.

ALBOANen, abiapuntutzat hartzen dugu desberdintasunak onartzea eta balioestea aberasgarria izan daitekeela gizarte guztientzat, eta hezkuntza lagungarria izan daitekeela behar diren gaitasunak sortzen laguntzeko, zertarako eta aniztasuneko bizikidetzak faktore lagungarri bilakatzeko, gizartea justizia sozialaz eraldatze aldera.

Alabaina, hezkuntzak erronka handia du aurrean helburu hori lortzeko; izan ere, aniztasunean bizikide izateko tresnak emateaz gain, pentsamendu kritikoz baliatuz, deseraiki egin behar ditu historian zehar gizarteetan finkatu diren iruditeria sozial, jardunbide eta jarrera arrazistak, xenofoboak eta gizarte-diskriminazioan oinarritutakoak. «Botere-harremanez ari garenean, kontuan hartu behar dugu nola eraiki den mundua eta nola osatu diren iparralde eta hegoalde globaleko herrialdeak. Garrantzitsua da ulertzea nondik abiatuta ezartzen diren gizartearen mailarik baxuenak eta altuenak. Kolonialismoa, esklabotza eta beste prozesu historiko batzuk ulertzen badira, orduan ulertuko da nor eta zergatik dauden gizartearen mailarik baxuenetan, eta zer arraza eta kultura balioesten diren gehien» (19EU-HEF).

Proiektu honetan hartu dugun gaitasunen ikuspegitik, alderdi hori bereziki garrantzitsua da justizia sozialera bideratutako partaidetza-prozesuetan; izan ere, «pertsona guztiek ez ditugu parte hartzeko aukera berberak, ez soilik zerbitzu eta ondasunak eskuratzeari dagokionez, baita pertsonen gizartearen duten abiapuntuari dagokionez ere. Horregatik, justizia

sozialaren alde egin nahi dugu lan, aintzat hartu nahi ditugu marjinetan dauden pertsonak eta taldeak. Pertsona guztiek parte hartzeko aukera berberak izan ditzaten lortu behar dugu, haien ekiteko gaitasunari eta giza duintasunari dagokionez, eta eskubideak eskuratzeko aukera eman behar diegu» (20EU-HEF).


Walshen (2007) arabera, munduko logika sozial, politiko eta ekonomikoan dauden botere-harremak menderatzaile berberak (arrazaren, klasearen eta generoaren arlokoak) gertatzen dira hezkuntzan. Hau da, hezkuntzako egiturak bat datoz munduaren antolamenduarekin, zeina nagusiki kapitalista eta koloniala den. Sistema horretan, baliozko jakintza zientifikotzat hartzen da iparralde globalean sortzen dena, eta «jakintza lokalizatutzat» jotzen da hegoalde globaleko beste kulturetatik eta gauzak ulertzeko moduetatik datorrena. Egileak *ezagutzaren geopolitikak eta ondare kolonialak* izendaturikoak mantentzen dira, eta horiek ez dituzte onartzen, adibidez, herri indigenen eta afrikarren ondorengoen antzinako ondare intelektualak.

Hezkuntza egituratzeko modu hori erronka bihurtzen da beste ezagutza mota batzuk baliozkotzat jotzerako orduan, bai eta partaidetza-prozesuetan askotariko jakintzak eztabaidan jartzean ere. Pertsona guztiak ez gara berdinak, eta berdinak izango bagina bezala jokatzeko badugu, pertsona batzuen desabantailak eta beste batzuen pribilegioak mantendu eta ezkutatu dira, besterik ez (Aguado & Del Olmo, 2009). Horregatik, ikuspegi horretatik kultura askoko koexistentzia gainditu eta *kulturarteko bizikidetzak* sustatu nahi da. Hau da, harreman horizontalak ezarri nahi dira hezkuntza-komunitatea osatzen dutenen artean, bai eta ikuspegiaren arteko elkarriketa eta trukea bultzatu eta eraldaketa sozialerako ekimenak taldean sortzea sustatu ere; aldiz, ez da homogeneizatu nahi, ez dira talde «bereziak» sortu nahi ezaugarri jakin batzuetan oinarrituta, esaterako, nazionalitatean, hizkuntzan, erlijioan, gizarte-mailan edo adinean.

Kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik, gizartea eraldatzeko parte hartzeko gaitasunak bultzatzean, zalantzan jartzen dira diskriminazioa, arrazakeria eta xenofobia sustatzen duten egitura sozial, politiko eta ekonomikoak. Era berean,

zenbait ekimen taldean eraikitzea bilatzen da, dauden ikuspegiak eta premiak kontuan hartuta.

Hala, hezkuntza-prozesuak ikuspegi horretatik ezartzearen ondorioz gizartea eraldatzeko sortutako partaidetza-ekimenek beharrezkoak diren baldintzak bermatu beharko dituzte gizarte-talde edo komunitate bat osatzen duten pertsona guztiak eraldaketa sozialeko prozesuen parte izan daitezen eta haien eskakizunak eta premiak kontuan har daitezen, haien jatorria, erlijioa, etnia eta kultura edozein delarik ere.





2. Gaitasunen mapa

Jarraian, Gaitasunen Mapa³ aurkeztuko dizuegu; maparen helburua da gazteen partaidetzako ekimenak gauza daitezen bultzatzea, gizartea eraldatzeko.

Tresna bat da, gazteekin lan egiten duten hezkuntza formaleko eta ez-formaleko hezitzaileek aukera izan dezaten jardunbide pedagogikoak diseinatzeko, parte hartze kritikoa eta eraldatzailea sustatze aldera.

Euskadin eta Kolonbian egin genuen ikerketaren emaitza da; hain zuzen ere, ikerketaren arloko profesionalekin, hezitzaileekin eta gazteekin egin genituen elkarriketetan behin eta berriz agertu ziren konpetentziak eta gaitasunak biltzen ditu⁴.

Maparen egitura zirkularra da, 4 maila zentrokide edo eraldaketa-arlo ditu eta horiek hiru alderdi handitan banatuta daude.


Gure logikaren arabera, gizarte-arloan jarduera positiboa lortzeko, herritarren parte hartzeari dagokionez, ezinbestekoa da lan espiritualetik hastea, pertsona guztien duintasuna babesteko konpromisoa duten pertsonak munduan kokatu daitezen. Pedagogia inaziotarretik abiatuta, **ALBOAN**en lortu nahi dugun hezkuntzak besteentzat arituko diren gizonak eta emakumeak prestatu nahi ditu, beren buruen eta inguratzen dituen munduaz arduratuko direnak, eta mundu hori senide-arteko gizarte justu bat bihurtzeko konpromisoa izango dutenak.

2.1. Eraldatzeko eremuak

Prozesu pedagogikoak hainbat eraldaketa-maila edo -eremutan lantzea proposatzen dugu, alderdi espiritualetik abiatuta, arlo pertsonaletik eta pertsonen arteko harremanetatik hasi eta gizarte-arlora heldu arte.

³ Mapa honek oinarriak hartu du *Fe y Alegría* Colombia sarearen *Ruta de Formación para la Vida en Plenitud. Transformar en Clave de Capacidades* (2016) ibilbidean, baina Euskadiko errealitate sozialera egokitzen da.

⁴ Euskadin gazteekin lan egiten duten hezkuntza formaleko eta ez-formaleko 12 hezitzailek baliozkotu dute mapa eta, amaitzeko, herritarren parte hartzearekin lotutako gaietan aditua den lantalde batek berrikusi zuen.



Gure proposamen pedagogikoek honelako pertsonak pres-tatu nahi dituzte:

Beren buruaz eta inguratzen dituen munduaz **JABE** direnak.

TREBEAK, gizarteko arazo teknikoei, sozialei eta giza arazoei aurre egiteko.

Mundu justuago batekin **KONPROMETITUAK**.

Kalteberenekiko **BIHOZBERAK**.

Hala, pixkanaka, kokapen hori agerian jartzen joango da pertsonak beren egunerokotasuneko harremanak izateko dituzten moduetan, eta hori lagungarri izan daiteke gizarte-eremu zabalagoan konpromisoa lortzeko eta ekintzak gauzatzeko.

1. irudia. Parte hartzerako hezkuntza eraldatzeko eremuak

Eremu horiek garatzeko, honako alderdi hauek landuko di-tuzten metodologiak ezarriko dira:

ESPIRITUALAK, nork bere burua ezagutuz eta introspeksioaren bidez.

AFEKTIBOAK, ikaskuntza sozioemozionalaren bidez.

KOGNITIBOAK-INTELEKTUALAK, ikaskuntza kritiko eta erreflexiboaren bidez.


AKTIBOAK, esanahien eta esperientziaren ikaskuntzaren bidez.



2.2. Alderdiak

Mapa Euskadiko errealitate sozialaren arazoei eta eraldaketa-premiekin bat datozen hiru alderdi handitan banatzen da: *hiritartasun globala*, *kulturarteko bizikidetza* eta *genero-ekitatea*.

2. irudia. Parte hartzerako hezkuntzaren eraldaketa eremuak



Hiritartasun globala

Ikuspegi horretatik egindako prozesu pedagogikoek:

PERTSONA guztien duintasuna aitortzea eta balioestea sustatzen dute, haien jatorria eta kultura gorabehera.

DESBERDINTASUN soziala sustatzen duten egitura sozial, ekonomiko eta politikoen hurbilketa kritikoa sustatzen dute.

INGURUMEN-ARLOKO kontzientzia eta kontsumo arduratsua sustatzen dute.

Genero-ekitate

Ikuspegi horretatik egindako prozesu pedagogikoek:

GENEROEN arteko botere- eta pribilegio-harremanak eraldatzeko balioak, jarrerak eta portaerak sustatzen dituzte.

EMAKUMEEN eta neskatoen aurka genero arrazoiengatik egiten diren indarkeria guztiak gaitzestea sustatzen dute.

ZENBAIT gizarte- eta kultura-kategoria elkartzaren direla, generoarekin batzen direla eta diskriminazio-modu berriak sortzen dituztela azaltzen eta problematizatzen dute.

EMAKUMEEN eta neskatoen eskubideak sustatzen dituzte eta eraldaketan gizonen baldintza beretan parte hartzea bultzatzen dute.

Kulturarteko bizikidetza

Ikuspegi horretatik egindako prozesu pedagogikoek:

ASKOTARIKO identitateak aitortzea sustatzen eta gizarte-taldeek garatzen diren testuinguruan duten aniztasuna baloratzen dute.

ERREALITATEAREN askotariko ikuspegiak barne hartzen dituzte eta agerian jartzen dituzte historikoki ikusezin bihurtu diren taldeen ekarpenak eta premiak, justizia sozialari eta demokraziari lagunduz.

DESBERDINTZAT jotzen diren pertsonen diskriminazioko, bereizkeriako eta bazterkeriako jarrerak eta portaerak, arrazismoa eta xenofobia desestali, salatu eta ezabatzen laguntzen dute.



Herritarren parte hartzerako gaitasunak

Alderdia	Gaitasunak eta konpetentziak	Eraldatzeko eremuak		
		Pertsonala	Pertsonartekoa	Soziala
1. Hiritartasun globala	1.1. Garapen psikosoziala	Emozioak ezagutzea eta identifikatzea eta horiek kudeatzeko tresnak eskuratzea.	Emozioak maneiatzea elkarreragin sozialeko egoeretan.	Gizarte-talde handiagoekiko lotura enpatiko eta solidarioak egitea.
	1.2. Gatazken kudeaketa	Gatazkak bizitzaren parte direla onartzea eta ikasteko aukera modura hartzea.	Pertsonarteko gatazkak modu baketsuan kudeatzea, elkarriketa, negoziazioa eta bitartekaritza erabiliz eta adostasuna bilatuz.	Gizarte-gatazka handien sormenezko kudeaketa kritikoan parte hartzea, indarkeriaren erabilera eta igoera saihestuz.
	1.3. Erabakiak hartzea	Norberaren ekintzen ibilbidea zehaztea, kostu eta onura pertsonalak ebaluatuta.	Elkarriketatzea, negoziatzea eta adostasunera heltzea, taldeko kostuak eta onurak ebaluatuta.	Taldeko ekintzetan parte hartzea, adostasunaren eta parte hartze demokratikoaren bidez.
	1.4. Pentsamendu kritikoa	Gaitasun kognitiboa garatzea, errealitate sozial, ekonomiko eta politikoaren irakurketa kritikoa egiteko.	Askotariko ikuspegiak onartzea eta balioestea errealitate sozial, ekonomiko eta politikoari buruzko eztabaidetan.	Arazo sozial, ekonomiko eta politikoen egiturazko kausak identifikatzea.
	1.5. Ingurumena zaintzea	Etengabe autoebaluatzea norbanakoak baliabide naturalekin eta kontsumo-ohiturekin duen harremana.	Kontsumo iraunkorreko jardunbideak elkartzea eta sustatzea, eta ingurune hurbileko baliabide naturalak babestea.	Bizitzaren adierazpen guztiak zaintzea eta planeta kontserbatzea eta mantentzea sustatzen duten ekimen sozial eta politikoetan parte hartzea.

Herritarren parte hartzerako gaitasunak

Alderdia	Gaitasunak eta konpetentziak	Eraldatzeko eremuak		
		Pertsonala	Pertsonartekoa	Soziala
2. Genero-ekitatea	2.1. Sexu- eta genero-aniztasunari errespetua eta balioespena	Genero identitatea modu askean eraikitzea.	Sexu- eta genero-aniztasuna onartzea eta errespetatzea pertsonen arteko harremanetan.	Sexu- eta genero-aniztasunaren analisi kritikoa, aitortpena eta errespetua, lurralde eta kultura-eremu guztietan.
	2.2. Autozainketa eta zainketa	Norberaren osotasuna zaintzeko sena garatzea.	Pertsonen artean errespetuzko harremanak sortzea, generoarekin lotutako estereotipoak eta aurreiritziak gaindituta.	Genero-ekitatea defendatzea eskubideak eta aukerak eskuratzeari dagokionez.
	2.3. Sexu- eta ugalketa-hautu autonomoak eta arduratsuak	Sexu- eta ugalketa-eskubideak ezagutzea eta erabiltzea.	Beste pertsona batzuekin eta berdintasuneko baldintzetan eraikitzea sexualitatearen erabilpen autonomoa.	Beste testuinguru sozial eta kultural batzuetan sexu- eta ugalketa-hautuak mugatzen edo sustatzen dituzten egoera sozial eta kulturaletarako hurbilketa kritikoa.
	2.4. Komunikazio ez-sexista	Generoarekin lotutako estereotipoak eta aurreiritziak sustatzen dituen eta diskriminatu egiten duen hizkuntzaren erabilera autoebaluatzea eta arautzea.	Jarrerak, hizkuntzaren erabilera eta iruditeria sozialak identifikatzea eta zalantzan jartzea, estereotipo sexista diskriminatzaileak sustatzen dituzten pertsonarteko harremanetan.	Gizarteko zenbait kontakizunetan zenbait gizarte-talderi buruz egiten diren genero-irudikapen sexistak eta diskriminatzaileak zalantzan jartzea eta salatzea.
	2.5. Ahalduntzea, ekitatea lortzeko	Norberak parte hartzeko, eragina izateko eta erabakiak hartzeko dituen gaitasunak hautematea, generoarekin lotutako estereotipoak alde batera utzita.	Pertsona guztien ikuspegiak eta iritziak onartzea, balioestea eta defendatzea, genero-desberdinkeriak gaindituta pertsonen arteko harremanetan.	Genero-arloko arrazoiengatik desabantaila-egoeran dauden taldeak ikusarazteko ekimenetan eta gizarte-proiektuetan parte hartzea.

Herritarren parte hartzerako gaitasunak

Alderdia	Gaitasunak eta konpetentziak	Eraldatzeko eremuak		
		Pertsonala	Pertsonartekoa	Soziala
3. Kulturarteko bizikidetza	3.1. Aniztasuna onartzea eta errespetatzea	Norbanakoen ezaugarri fisikoak, nortasunari buruzkoak, sozioekonomikoak, kulturalak eta erlijiosoak onartzea eta balioestea.	Iruditeria sozial diskriminatzaileak berritxuratzea eta harreman horizontalak izatea pertsona guztiekin.	Gizarte-talde desberdinen giza duintasunaren aurka egiten duten mito eta iruditeria sozialak deseraikitzen dituzten talde-ekintzetan parte hartzea.
	3.2. Ikuspegi-aniztasuna	Onartzea mundua ikusteko norberaren ikuspegia baliozkoa eta bidezkoa dela, besteak bezala.	Norberaren eta taldearen interesak negoziatzea, kontuan hartuta beste kultura-ikuspegi batzuk eguneroko bizitzako harremanetan.	Giza eskubideak defendatzeko eta bermatzeko ekintzetan parte hartzea, kontuan hartuta kaltetutako taldeen premia bereziak.
	3.3. Justizia soziala	Subjektuaren errealitatea ezagutzea, justizia sozialetik.	Aintzat hartzea zer zailtasun dituzten eskubideak eta aukerak eskuratzeko, egoera administratibo eta sozioekonomiko, jatorri eta kultura desberdina duten ingurune hurbileko pertsonak.	Pertsona guztiek, haien gizarte-maila, jatorria eta kultura edozein delarik ere, eskubide eta aukerak eskuragarri izan ditzaten defendatzen parte hartzea.
	3.4. Malgutasuna	Norberaren sinesmenak eta jarduketak egokitzea, gizarte-eraldaketa testuinguruetan.	Norberaren planteamenduak eraldatzea, beste interes eta ikuspegi batzuk txertatuta.	Gizarte-dinamika berriak egokitzea, gizarte demokratiko eta pluraletako bizikidetzan.

Eranskinak

1. eranskina. Autodiagnostikoa⁵

Ikastetxeek eta hezkuntza ez-formaleko taldeek gazteen artean gizartea eraldatzeko ekimenetan parte hartzeko gaitasunak sustatzen dituztenean, esan nahi du (i) politikak, (ii) kultura eta (iii) ikuspegi pedagogikoa bat datozela Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzaren printzipioekin.

Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak aukera ematen du pertsonak kritikoki uler ditzaten hala botere-harreman desorekatuak nola desparekotasunaren prozesu historikoa, gizartearen eraldaketan parte hartzeko. Hezkuntza mota horrek arreta jartzen du testuinguruaren errealitatearen alderdietan, eta elkarrizketa, pentsamendu kritikoa eta sormena ditu oinarri. Halaber, ezagutza taldean sortzea eta hezitzaileen eta ikasleen artean harreman horizontalak egotea balioesten du.

Hala, pertsonak aldaketaren eragiletzat dituen paradigma batetik ulertzen da hezkuntza, eta onartzen da hezkuntzako jardunbidea dela bizitzaren arlo guztietan botere-harreman bidezkoak eta parekideak sortzearen alde egiten duen prozesu etiko, politiko eta soziala.

Hezkuntzatik gazteen parte hartzea sustatzeko, ikastetxeen eta hezkuntza ez-formaleko taldeen politikak, plangintza eta antolaketa bat etorri beharko dira Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzarekin, haien curriculumari, dokumentu estrategikoei, barne-antolamenduari eta ingurunearekin erlazionatzeko moduari dagokienez.

Autodiagnostiko honetako galderak gida bat dira, hezitzaileek eta ikastetxeetako zuzendariak aukera izan dezaten gizartea eraldatzeko prozesuetan ikasleen parte hartzea sustatzen edo zailtzen duten elementuak identifikatzeko.

Amaierako ebaluazioari esker, gazteen parte hartzerako gaitasunak sustatzen eta garatzen lagunduko duten neurriak lehenetsi, planifikatu eta abiarazi ahalgo dira, hiritartasun globalaren, genero-ekitatearen eta kulturarteko bizikidetzaren ikuspegitik.

1. Plangintza eta antolamendua

1.1. Dokumentu estrategiko eta operatibotan txertatzen al dira Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren aldeko ikuspegi eta proposamenak? Baiezkoa bada, zein?

1.2. Sustatzen al da irakasleen prestakuntza jarraitua, partaidetzako irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak gauzatzen laguntzeko trebetasunak garatze aldera?

1.3. Sustatzen al dira hezkuntza-komunitateak ikastetxearen hezkuntza-prozesuei eta politikei buruz etengabe hausnartzeko eta horiek ebaluatzeko guneak?

2. Printzipioak, xedea eta balioak

2.1. Lantzen al dira pedagogikoki herritarren tokiko eta munduko kezka, erronka eta pre-miak? Baiezkoa bada, nola jartzen da agerian kezka hori?

⁵ Centros Educativos Transformadores. Rasgos y Propuestas para Avanzar (2018) dokumentutik egokitua.

2.2. Ba al da herritarrentzako hezkuntza-estrategiarik? Baiezkoa bada, zer helburu dauka?

2.3. Elkartasunaren alde hezten al da? Baiezkoa bada, nola?

2.4. Natura eta ingurunea errespetatzen duten harremanak sustatzen al dira? Baiezkoa bada, nola?

3. Jardunbide pedagogikoak

3.1. Eztabaida, elkarriketa eta erabakiak taldean hartzea sustatzen da? Baiezkoa bada, nola?

3.2. Ezagutza eraikuntza kolektibotzat jotzen da?

3.3. Esanahien eta esperientziaren ikaskuntzak sustatzen dituzten jardunbide pedagogikoak ezartzea sustatzen da? Baiezkoa bada, nola?

3.4. Gaitasun sozioemozionalak (esaterako, autoestimua, enpatia eta frustrazioarekiko tolerantzia) garatzea sustatzen al da? Baiezkoa bada, nola?

3.5. Sustatzen al da pentsamendu kritikoa, errealitate soziala irakurtzeko? Baiezkoa bada, nola?

3.6. Ezagutzen eta balioesten al dira hezkuntza-komunitatea osatzen duten pertsona guztien jakintzak eta ikasteko moduak? Baiezkoa bada, nola?

3.7. Genero-ikuspegia txertatzen al da jardunbide pedagogikoetan? Baiezkoa bada, nola?



2. eranskina. Elkarrizketen kodeak

EU = Euskadi

KO = Kolonbia

A = Akademikoa

HF = Hezkuntza formala

HEF = Hezkuntza ez-formala

G = Gazteak

Zk.	Elkarrizketaren kodea	Izena	Erakundea
1	EU G	Aitor Gómez, Ainhoa Huidobro, Elenka Méndez, Sheila Colom, Mohamed Ouikiouch, Victor Cortizo, Lucía García, Laura Manzanal, Jose Terrones	Gazte Sarea ALBOAN (begiraleak)
2	EU G	Jessica Lukombo	Raizes talde dekolonial transfeminista
3	KO G	Camilo León eta ikasleak	Gazteen <i>Nacho Estéreo</i> irratietxeko eta Bogotako San Ignacio ikastetxeko (Fe y Alegría Colombia federazioa) ikasle-taldea
4	KO G	Maryori Cuervo	San Ignacio ikastetxeko (Fe y Alegría Colombia federazioa) Guarichas talde feminista
5	KO G	Camilo Rubio eta ikasleak	Clan Changó argazkilaritza-taldearen eta San Ignacio ikastetxeko (Fe y Alegría Colombia federazioa) ikasleak
6	KO G	Junior Zamora Grueso (Cali), Helen Hiroshima (Pereira), Luis Carlos Soler (Bogota), Paola Andrea Ortiz Ramírez (Cali), Angie Alexandra Sánchez (Bucaramanga), David Bonilla (Ibagué)	Fe y Alegría Colombia federazioko gazte-sare nazionala
7	EU HF	Mercedes Grijelmo	Jesuitak Donostia ikastetxea
8	EU HF	Marisabel Albizu, Elena Azpitarte eta Txaro Bahillo	Aldatze Ikastetxea, Eibar
9	KO HF	Amanda Bravo eta Claudia Marcela Vega	Pedagogiako eta hezkuntzako edukien garapena Fe y Alegría Colombia federazioan
10	KO HF/HEF	Víctor Murillo Urraca	Fe y Alegría Colombia federazioaren zuzendaritza nazionala
11	EU HEF	Unai Amezaga	Getxoko Udalako Gazteriako Zerbitzua
12	EU HEF	Minerva León eta Leire Martínez	Boluntariotza eta parte hartzeko agentzia- Bizkaia

Zk.	Elkarrizketaren kodea	Izena	Erakundea
13	EU HEF	Maialen Olabe	Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
14	EU HEF	Javier Carnicero	Portugaleteko Aisialdi Sarea
15	EU HEF	Arturo Carracedo	Euskal Herriko Eskautak Bizkaia
16	EU HEF	Iñigo Sáez de la Fuente	ALBOAN erakundeko gazte-taldeetako begiralea
17	EU HEF	Iratxe Ugalde	Jesuitak Indautxu talde feministaren koordinazioa
18	EU HEF	Beatriz Pérez	Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza - Munduko Medikuek, Euskadi
19	EU HEF	Mamadou Ngom	Kultura-arloko bitartekaritza - Munduko Medikuek, Euskadi
20	EU HEF	Aitziber Bañuelos	Eraikiz Kolektiboa
21	KO HEF	Diana Patricia Agudelo (Karibea), Paula Andrea Vargas (Antioquia / kafearen ardatza), Yadir Lorena Zúñiga (Pazifikoa), Kelly Paola Téllez (Ekialdea).	Komunitatearen Garapenerako eta Ahaldunderako ekimenen eskualdeko koordinazioa – Fe y Alegría Colombia
22	KO HEF	Juan Pablo Rayo	Fe y Alegría Nazioarteko Federazioa
23	KO HEF	Oscar Sánchez	Educapaz Kolonbia
24	KO HEF	Sabrina Burgos	Misioen Zerbitzuaren koordinazioa: komunitatearen garapenerako eta ahaldunderako ekimenak. Fe y Alegría Colombia
25	EU A	Jone Miren Hernández	Euskal Herriko Unibertsitatea/ Universidad del País Vasco
26	EU A	Asier Blas	Parte Hartuz - Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del País Vasco
27	EU A	Diego Argumero	Etika Aplikatuak Zentroa-Deustoko Unibertsitatea
28	KO A	Roberto Solarte	Kolonbiako Unibertsitate Xabiertarra
29	KO A	José Fernando Mejía	<i>Aulas en Paz</i> programaren zuzendaritza. Kolonbiako Andeetako Unibertsitatea

Erreferentziak

- Aguado, Teresa eta Margarita Del Olmo. 2009. *Educación Intercultural. Perspectivas y Propuestas*. Madril: Ramón Areces unibertsitate-argitaletxea.
- Arellano, Javier. 2015. «Democracia y Movimientos Sociales: Crisis de Representación y Caminos de Avance» in *Los Movimientos Sociales y la Participación Ciudadana*, 7.-26. or. Bilbo: **ALBOAN**.
- Brito, Zaylín. 2008. «Educación Popular, Cultura e Identidad desde la Perspectiva de Paulo Freire» in *Paulo Freire. Contribuciones para la Pedagogía*, argitaratzaileak: Moacir Godotti, Margarita Gómez, Jason Mafra eta Anderson Fernandes, 29.-45. or. Buenos Aires: CLACSO.
- Cornwall, Andrea. 2002. *Making Spaces, Changing Places: Situating Participation in Development*. Brighton, Sussex: Institute of Development Studies.
- Crenshaw, Kimberle. 1991. «Mapping the Margins: Intersectionality, Identity Politics and Violence against Women of Colour». *Stanford Law Review* 43 (6): 1241.-1299. or.
- Fe y Alegría Colombia. 2015. *Sintonizando Nuestra Propuesta Educativa: Sueños e Intencionalidades*. Bogota: Ladiprint Editorial S.A.S.
- Fe y Alegría Colombia. 2016. *Ruta de Formación para la Vida en Plenitud. Transformar en Clave de Capacidades*. Bogota: Ladiprint Editorial S.A.S.
- Freire, Paulo. 1970. *Pedagogía del Oprimido*. Mexiko DF: Siglo veintiuno editores, S.A.
- Maiztegui, Concha eta Marlen Eizaguirre. 2008. *Ciudadanía y Educación: De la Teoría a la Práctica*. Giza Eskubideei buruzko Deustu Koadernoak. Arg: Bilbo. Deustuko Unibertsitateko argitalpenak.
- Merino, Mauricio. 1995. *La Participación Ciudadana en la Democracia*. Cuadernos de divulgación de la Cultura Democrática. Mexiko DF: Ife.
- Movimiento por la Educación Transformadora y la Ciudadanía Global (METCG). 2018. *Centros Educativos Transformadores. Rasgos y Propuestas para Avanzar*. Madril: Intered fundazioa.
- Nussbaum, Martha. 2012. *Crear Capacidades: Propuesta para el Desarrollo Humano*. Bartzelona: Paidós.
- Gazteen Euskal Behatokia. 2015. *Juventud y Participación Social en Euskadi*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpenak.
- Oxfam. 2013. *Centros Educativos Transformadores. Ciudadanía Global y Transformación Social*. Ciudadanía Global bilduma. Bartzelona: Creative Commons.
- Sen, Amartya. 1993. «Capability and Well-Being» in *The Quality of Life*, edizioa: Martha Nussbaum and Amartya Sen, 30.-53. or. Oxford: Clarendon Press.
- UNESCO. 2014. «Equidad de Género» in *Indicadores Unesco de Cultura para el Desarrollo*, 104.-115. or. Paris: Unesco argitaletxea.
- United Nations. 2016. *Youth Civic Engagement World Youth Report*. New York: United Nations.
- Urquijo, Martín. 2014. «La Teoría De Las Capacidades en Amartya Sen» *Edetania. Estudios y Propuestas Socioeducativas* (46): 63.-80. or.
- Walsh, Catherine. 2007. «Interculturalidad, Colonialidad y Educación» in *Revista Educación y Pedagogía* 19 (48): 25.-35. or.



PARTE HARTZEAREN BIDEAN


Euskadi – Kolonbia 2019

Gaitasunen mapa lantzeko pausoak

1 GURE INDARGUNEAK

eta hobetu beharreko arloak identifikatuko ditugu – Autodiagnostikoa (Ikus 1. eranskina)

- Gure ikastetxeak edo hezkuntza ez-formaleko taldeak herritasren parte-hartzea sustatzen al du gazteen artean?
- Zer aldaketa egin ditzakegu?



2

GAZTEEI

beren errealitatetik aldatu nahi duten alderdiren bat hautatzen lagunduko diegu. Hartu datuak metodologia erabil dezaten iradokiko diegu

- Zer eraldatu nahi dugu?
- Zer lortu nahi dugu?
- Nola egin dezakegu?



GAZTEEI beren ekimenekin lagunduko diegu, kompetentziak eta gaitasunak sustatuz

- Nola susta dezakegu hausnarketa kritikoa eta talde-eraikuntza, hautatutako gaian?



3

EKIMENA gauzatzen lagun dezaketen kompetentziak eta gaitasunak hautatuko ditugu

- Zer kompetentzia eta gaitasun dira beharrezkoak gizartea eraldatzeko xedea duen partaidetza-prozesua gauzatzeko?

